

PBI-EE

NAZIOARTEKO
BAKE
BRIGADAK

Espainiako Estatua

2023ko
JARDUEREN
MEMORIA



AURKIBIDEA

NAZIOARTEKO BAKE BRIGADAK (PBI).....	3
GURE PRINTZIPIOAK	5
PBI-ESPAINIAKO ESTATUA	7
ARDATZ ESTRATEGIKOAK.....	10
2023AN EGINDAKO JARDUERAK	14
— Eragin politikoa	14
— Sentsibilizazioa eta hezkuntza	21
— Komunikazioa.....	27
— Antolakuntza indartzea	32
SAREAK ETA ALIANTZAK.....	34
TOKIAN BERTAN	36
2023 ZENBAKITAN	48
PARTE HARTU	53
HARREMANETARAKO	55



NAZIOARTEKO BAKE BRIGADAK (PBI)

Duela 43 urte, 1981ean, nazioarteko hainbat aktibista bakearen, nazioarteko elkartasunaren eta ekintza ez-biolentoaren aldeko mugimendu bat sortzeko asmoz bildu ziren. Mundu osoko aktibismo ez-biolentoan oinarrituta, **Nazioarteko Bake Brigadak (PBI)** erakundeak gatazkan dauden gizarteen eraldaketa baketsua laguntzeko helburua ezarri zuen, elkarrizketaren bitartez eta giza eskubideak errespetatuz.

Sortu zenetik, erakundearen misioa da giza eskubideak defendatzen dituzten eta horren ondorioz arrisku egoeran dauden pertsonak, erakundeak eta komunitateak babestea. Izan ere, PBI aitzindaria da nazioarteko bidelaguntzaren arloan, eta **babes integraleko estrategia** bat garatu du honako hauetan oinarrituta:

- Pertsona, erakunde eta komunitate defendatzaileei bidelaguntza fisikoa ematea, brigadistak etengabe bertan direla.
- Bidelaguntza politikoa, maila guztietan eragiteko lan eginez, hau da, tokian, estatu-mailan, nazioartean.
- Antolakuntzako bidelaguntza, gizarte ehuna babesteko eta leheneratzen laguntzeko tailerren bitartez.
- Pertsona eta erakunde defendatzaileen lana bistaratzea, komunikazio, sentsibilizazio eta hezkuntza lanaren bitartez.

43 urte hauetan, PBIk erakutsi du nazioarteko bidelaguntza eta behaketa tresna baliagarriak direla giza eskubideen urraketak ekiditeko eta eskubide horiek babesten dituzten lagunen, komunitateen eta gizarte-erakundeen lan-eremua zabaltzeko.

Gaur egun, PBIk honako zortzi talde hauek ditu tokian bertan: **Kolonbia, Guatemala, Honduras, Mexiko, Kenya, Indonesia, Nepal eta Nikaragua Costa Rican**. Gainera, Ipar Amerikan, Australian eta Europan 14 erakunde ditu, eta horiek sostengua ematen dute, nazioarteko babes-sare baten bitartez. Sareak, bada, segurtasun-gorabeheren eta arrisku-egoeren aurrean eragiteko gaitasuna du, eta horretarako eragin politiko, sentsibilizazio, hezkuntza eta komunikazio lan handia egiten dute. Horiek guztiek, hau da, tokian bertan lan egiten duten erakundeek zein talde nazionalak, sare global bat osatzen dute; hain zuzen ere, PBIk nazioartean ordezkatzeko duen sarea. **Nazioarteko Bake Brigadak Espainiako Estatuan (PBI-EE)** 14 talde nazional horietako bat da.

GURE PRINTZPIOAK

PBIk bakerako eremuak zabaltzeko lan egiten du, erakundearen babes integraleko lana bideratzen duten printzipio hauen arabera:

Indarkeriarik ez

PBIren ustez, bake iraunkorra eta gatazken konponbide iraunkorrak ezin dira metodo biolentoen bitartez lortu. Hortaz, erakundeak edozein jatorriko edozein indarkeria arbuiatzen du. Izan ere, PBIren helburua gizarte baketsuak eraikitzeko prozesuak laguntzea da, eta, horretarako, modu demokratikoan lan egiten duten eta bide ez-biolentoen bitartez gatazkei irtenbide politikoak bilatzen dizkieten taldeen arteko lankidetzaz sustatzen du.

Alderdikeriarik ez

Nazioarteko indar eta bitarteko gisa, PBIk modu independentean eta ez-alderdikarian jokatzen du. Horrek ez du esan nahi injustiziaren aurrean eta giza eskubideen, duintasun pertsonalaren eta askatasun indibidualaren urraketen aurrean neutrala edo pasiboa denik. Aitzitik, PBI guztiz konprometituta dago balio horiekin, eta indarkeriaren (fisikoa zein estrukturala) aurka borrokatzen du, bake iraunkorra ezartzeko bide gisa. Printzipio horretan oinarritzen da eskua ez sartzeko printzipioa. Horrek esan nahi du PBIk ez duela eskua sartzen laguntzen dituen erakundearen barne kontuetan. Hortaz, giza eskubideak babesteagatik arrisku egoeran dauden pertsonak edo erakundeak eskatzen dutenean bakarrik laguntzen du PBIk.

Nazioarteko izaera

PBI izaera internazionala duen erakunde globala da, eta herri guztien autonomia eta autodeterminazio eskubidea errespetatzen du. Zentzu horretan, nazioarteko erkidegoak pertsonengan eragiten duten gatazken eta krisien eta guztiontzat onuragarria den bakearen inguruan dituen kezkek ordezkatzeko erakundeak.

Horizontaltasuna

PBIren nortasuna eta lana antolakuntza-egitura ez-hierarkikoen eta biltzar bidezko erabakitze-prozesuen bitartez eraikitzen da. Horiek, bada, adostasunean oinarritzen dira, eta harremanak eta prozesuak kontuan hartzen dituzte, ez soilik emaitzak.



PBI ESPAINIAKO ESTATUA

PBI-EE 1987an sortu zen, PBIren nazioarteko erakundeei tokian bertan laguntzeko helburuz. Ordutik hona, gure lanak honako hauetara bideratu da: sentsibilizazioa eta gizarte eraldaketarako hezkuntza, eragin politikoa, komunikazioa, laguntza-sareak sortzea, tokian bertan boluntarioak trebatzea eta boluntarioritza indartzea, eta bertan lan egiten jarraitzeko dirua biltzea.

Gaur egun, PBI-EEK estatuko zortzi autonomia-erkidego hauetan lan egiten du: **Andaluzia, Kantabria, Katalunia, Gaztela eta Leon, Valentziako Erkidegoa, Euskadi, Extremadura, Madril eta Nafarroa.**

Gainera, PBI-EEK estatu-mailako bulego bat du, eta hura arduratzen da eguneroko lanaz, Batzarraren mandatua betetzeaz, erabaki operatiboak hartzeaz eta proiektuekin eta PBIren nazioarteko egiturarekin harremana mantentzeaz. Aldi berean, batzarreko zenbait lagunek osatutako batzorde baten aholkularitza ematen dio bulegoari gai garrantzitsuen inguruan. Boluntario taldeek eta tokiko taldeek, hainbat hiritan, PBIren oinarri sozial aktibista mantentzen dute, hura baita gure lan-ikuspegiaren oinarria.

2023. urtean honako hauek osatu dute PBI-EEren taldea:

- **Estatu-mailako bulegoa**, zortzi lagunek osatuta (6 emakume eta 2 gizon)
 - Estatuko koordinazioa.
 - Administrazio eta finantza arduraduna.

- Eragin arduraduna.
 - Sentsibilizazio arduraduna.
 - Komunikazio arduraduna eta Extremadurako lurralde-ordezkaria.
 - Euskadiko lurralde-ordezkaria
 - PBI Kataluniako koordinazioa
 - PBI Kataluniako administrazio eta finantza arduraduna.
- **Talde nazionaleko batzordea**, hiru lagunek osatuta (3 emakume).
 - 30 lagunek baino gehiagok **boluntario** gisa parte hartu dute (batzarrak, batzordea, lantaldeak, ekitaldiak, defendatzaileei biretan laguntzea).
 - 72 **bazkide** (37 emakume eta 35 gizon).
 - **Estatuko Zuzendaritza Batzordea**, lau lagunek osatuta (3 emakume eta gizon bat), Lehendakaritza, Lehendakariordetza, Diruzaintza eta Idazkaritza karguetan.

PBIren nazioarteko egitura bezalaxe, PBI-EE modu horizontalean eta batzar bidez antolatzen da, eta erabakiak kontsentsu bitartez hartzen ditu. **Estatuko Batzarra** gobernantza organo gorena da, eta sei hilean behin ospatzen da. Topaketa-eremu horrek erakundearen jarduerarako beharrezkoak diren erabaki estrategikoak hartzeko aukera ematen du, eta Espainiako Estatuko lurralde desberdinetan PBIren ehun soziala osatzen duten pertsonak elkar topatzeko, partekatzeko eta antolatzeko aukera garrantzitsua eskaintzen du.

2023ko urtarrilean eta maiatzean, batzarraren bi saio formatu birtualean ospatu ziren, ekonomia gaiei eta kontuak emateari buruz. Geroago, azaroan, Solórzanoko (Cantabria) batzar presentziala ospatu genuen. Horretan, garapen estrategikoari buruzko parte hartzeko prozesu bat egin genuen, eta, horren emaitza gisa, PBI-EEren 2024-2026 aldirako Plan Estrategikoa diseinatu genuen.





ARDATZ ESTRATEGIKOAK

PBIk giza eskubideak hainbat esparrutan defendatzen dituzten pertsonak, erakundeak eta komunitateak laguntzen ditu, hala nola esparru hauetan: lurraren, lurraldearen eta ingurumenaren defentsa, adierazpen askatasuna, LGTBIQA+ eskubide kolektiboak, edo memoria eta egia jakiteko, justizia lortzeko eta erreparazioa izateko eskubidea. Horien guztien artean, honako hauek dira PBI-EEren lanean zentralak izan diren ardatz estrategikoak:

Lurraren eta lurraldearen defentsa - enpresak eta giza eskubideak

Megaproiektuak (estraktibistak, hidroeletrikoak, agroindustrialak eta azpiegiturakoak) ezartzearekin batera, kriminalizazio eta errepresio estrategiak erabiltzen dituzte lurraldea eta ingurumena defendatzen duten horien kontra. Hala, megaproiektuen aurka dauden pertsonak, erakundeak eta komunitateak eraso larriak jasaten dituzte, eta premiazkoa da egoera hori ezagutzera ematea eta Estatuari arauak ezartzeko exijitzea. Enpresek arau horiek bete beharko dituzte, eta giza eskubideak jardueraren hornidura-kate osoan zehar errespetatzen direla bermatu beharko dute.

“PBIren lana eskertzen dut, batez ere gaur egun gure lurraldeetan jarraitzen duen nazioarteko erakunde bakarra delako”. Carlos Morales, Unión Verapacense de Organizaciones Campesinas (UVOC). Guatemala”.

Carlos Morales,
Unión Verapacense de Organizaciones Campesinas (UVOC). Guatemala

Generoa eta aniztasunak

Emakume defendatzaileek eta LGBTIQ+ komunitateak maiz diskriminazio bikoitza pairatzen dute, defendatzaile gisa duten eginkizunagatik eta beren genero-identitate eta sexu-orientazioagatik. Haien aurkako indarkeriak kriminalizazio-patroi bereiziak ditu: maiz, egitura patriarkalak aurkitzen dituzte Estatuan eta enpresetan, baita beren erakundeetan, komunitateetan eta etxeetan ere. Funtsezkoa da emakume defendatzaileek beren prozesu eta erakundeetako subjektu aktibo gisa egiten duten lana bistaratzea eta babestea; izan ere, emakume horiek ezinbesteko eginkizuna dute bake prozesuetan, gatazkei konponbide baketsuak ematean eta sozialki bidezkoak eta ekologikoki iraunkorrak diren bizimoduak sortzean.



“PBI nire bigarren familiaren parte da. Adore eta konfiantza iturria da guretzat, emakume liderrontzat, gure lurraldean bizitzeko eskubidea, elikadura segurtasuna eta komunitateak berak defendatzen jarrai dezagun”.

Yuli Velásquez,
Federación de Pescadores Artesanales de Santander (FEDEPESAN). Kolonbia

Kriminalizazioa eta eremuak ixtea

Defendatzaileek, gero eta gehiago, kriminalizazio ekintzak jasaten dituzte. Ekintza horien helburua da gizarte ehuna haustea eta defendatzaileak ahultzea eta desmobilizatzea. Giza eskubideen alde egiten dute lanagatik, defendatzaileek difamazioak, jazarpenak, estigmatizazioak, judizializazioak, mehatxuak, erasoak eta kriminalizazio fisikoko, legaleko eta sozialeko beste modu batzuk pairatzen dituzte. PBIren babes integraleko ikuspegiaren misioa da eraso horiek ekiditea eta lan-eremu horiek zabalik jarrai dezaten sustatzea, defendatzaileek giza eskubideen alde lan egiten jarrai dezaten.



“Hainbatetan mehatxatu naute, hainbat modutan jazarri naute, eta 2013an nire herrialdetik alde egin behar izan nuen. Baina PBI aurkitu nuen eta, hala, nire lanari berrekin ahal izan nion”.

Dina Meza,
ASOPODEHU. Honduras

Zigorgabetasuna

Zigorgabetasun indizeak altuak izaten dira PBIk bidelaguntza eta behaketa lana egiten duen herrialdeetan. Testuinguru askotan, zigorgabetasuna kasuen % 97 da. Hori izugarri larria da, giza eskubideak urratzen jarraitzeko giroa ezartzen duelako. Testuinguru horretan, memoria leheneratzeko eta egia, justizia, erreparazioa eta ez errepikatzeko bermeak exijitzeko lan egiten duten gizarte-prozesuak laguntzearen garrantzia nabarmentzen du PBIk.



“PBIren bidelaguntza bizitzaren alde da; biktimek bizitza duina izateko, estatuak ziurtatzen ez dizkien eskubideak bermatzeko. Gainera, nazioarteko erkidegoak biktimen eginkizuna aintzat hartzea dakar”

Laura,
Fundación Nydia Erika Bautista (FNEB). Kolonbia



2023AN EGINDAKO JARDUERAK

PBI-EEK pertsona, erakunde eta komunitate defendatzaileak babesten laguntzen du, eta horiei ere hainbat jarduera-eremuren bitartez laguntzen die: eragin politikoa, sentsibilizazioa eta hezkuntza, komunikazioa, eta antolakuntza indartzea. 2023an zehar, honako ekintza hauetara bideratu dugu gure lana:

Eragin politikoa

Nazioarteko presentzia eraginkorra izan dadin eta disuasio-eragina izan dezan, funtsezkoa da giza eskubideen tokiko urraketak nazioarteko mailan ezagutzera ematea. Horretarako, eragin politikoko lana PBIren babes integraleko ikuspegiaren oinarrietako bat da. Birak eta batzarrak antolatzen ditugu, eta instituzioekin, eragile politikoeekin, abokatuen elkargoekin eta gizarte zibileko erakundeekin informazio eguneratua partekatzen dugu. Horiek guztiek PBI-EEren laguntza-sarean parte hartzen dute. Hala, alerta kasuetan eta lagundutako pertsona edo erakundeen aurkako erasorik edo mehatxurik badago, sareak erantzun antolatua eta sendoa ematen du nazioarteko erkidegotik.

Pertsona eta erakunde defendatzaileen birak

2023an nazioarteko sei bira lagundu ditugu. Horietan, Kolonbiako, Mexikoko eta Guatemalako bederatzi defendatzailek parte hartu dute (lau gizon eta bost emakume). Ekintza horiei esker erakunde defendatzaileen eta ordezkari politikoen, erakunde akademikoen, abokatuen elkargoen eta gizarte zibileko erakundeen arteko eremuak zabaldu dira Espainiako Estatuko zenbait lurraldetan.

Lurraren, lurraldearen eta ingurumenaren defentsa



Apirilean, Guatemalako **Efraín Martínez** defendatzailea eta **Diana Méndez Vivar** giza eskubideen arloko abokatua **Valentziatik, Euskaditik, Madriletik eta Valladolidetik** egindako bira batean lagundu genituen. Efraín **Multisectorial Chinautla** erakundeko antzinako agintarien bozeramailea da, eta Diana **Bufete Jurídico de Derechos Humanos (BDH)** langelako kide da. Bira Periferias del Món eta ICID erakundeekin batera antolatu zen, eta horretan honako instituzio hauetako eragile politikoen batzartu ziren: Diputatuen Kongresua, Senatua, Garapeneko Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentzia (AECID), Gaztela eta Leongo Junta, Valladolideko Diputazioa, Valentziako Generalitateko Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusia eta Valentziako Udala. Halaber, abokatutzako eragileekin ere batzartu ziren, hala nola Fundación Abogacía Española fundazioarekin, Arriskuan dauden Abokatuen Nazioarteko Behatokiarekin (OIAD), Valladolideko Unibertsitateko Giza Eskubideen Behatokiarekin eta klinika juridikoarekin, eta Valentziako Unibertsitateko klinika juridikoarekin. Biran zehar, lurraldea eta ingurumena babesten dituzten defendatzaileek eta epaitegietan haien kasuak daramatzaten abokatuek Guatemalan bizi dituzten arriskuen berri eman zuten.

Urrian, **Unión Verapacense de Organizaciones Campesinas (UVOC)** erakundeko **Sandra Calel** eta Guatemalako **Comité Campesino del Altiplano**



(CCDA) erakundeko **Lesbia Artola** defendatzaileek parte hartu zuten PBIk **Katalunian** antolatutako bira batean. Bira hura Guatemalako Nazioarteko Abokatuen Delegazio Independentetarako egindako “No somos usurpadores: esta es nuestra tierra” txostenaren aurkezpen publikoarekin batera egin zen. Txostena, bere aldetik, 2023koa da eta Alta Verapaz departamenduko herri indigenen eskubideen eta nekazaritzako gatazkaren gaia lantzen du. Bisitan zehar, eragiteko batzarrak egin zituzten Kataluniako Generalitateko Kanpo Ekintzako Kontseilariarekin, Garapenerako Lankidetzaren Kataluniako Agentziarekin, Kataluniako parlamentuko zenbait talde politikorekin, Bartzelonako Udaleko Justizia Global eta Lankidetzaren Zuzendaritzarekin, Bartzelonako abokatuen elkargoarekin (ICAB) eta Pertsonen eskubideen Behatokiarekin.



Azaroan, **Kolonbiako Asociación Campesina del Catatumbo (ASCAMCAT)** erakundeko **Juan Carlos Quintero** defendatzaileak Euskadin egindako bira lagundu genuen. Bira IAPrekin batera antolatu zen, eta, horretan, Kolonbiako gatazkaren esparruan lurra duen egoera eta komunitate nekazariak dituzten arriskuak landu ziren. Eusko Legebiltzarreko Kolonbiako bake prozesua babesteko taldeartekoarekin eta EHNE-Bizkaia nekazaritzako sindikatuarekin ere batzartu ziren, Kolonbiako erakundearen babes-sarea zabaltzeko asmoz.

Memoriaren aldeko lana: egia, justizia eta erreparazioa bilatzea



Ekainean, **Kolonbiako Comité de Solidaridad con los Presos Políticos (CSPP)** erakundeko lehendakari **Óscar Ramírezek** eta **Movimiento Nacional de Víctimas de Crímenes de Estado (MOVICE)** erakundeko **Martha Giraldok** egindako bida lagundu zuen PBIk. La Intersindical, Collectiu Maloka eta Mugarik gabe erakundeekin batera antolatu zen bira, eta jarduerak egin ziren **Katalunian, Madrilen eta Nafarroan**. Hala, erakunde publikoekin eta Kataluniako Parlamentuko, Nafarroako Gobernuko eta Iruñeko Udaleko eragile politikoekin batzartu ziren. Gainera, Fundación Abogacía Española fundazioarekin eta Arriskuan dauden Abokatuen Nazioarteko Behatokiarekin batzartu ziren. Biran zehar hainbat gai jorratu ziren, hala nola poliziaren indarkeria, protesta sozialerako bermeak, tortura desagerraraztea, eta estatu-krimenen biktimei laguntza ematea.



Urrian, **Kolonbiako Fundación Nydia Erika Bautista (FNEB)** erakundeko kide den **Andrea Torres Bautistak Euskadin, Extremaduran eta Madrilen** egindako biran lagundu genuen. Besteak beste, Emakume Bilatzaileei buruzko Lege proiektua laguntzearen garrantzia nabarmendu zen. Horretarako, Berdintasun Ministerioarekin, Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioarekin, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Extremadurako Agentziarekin (AEXCID) eta Diputatuen



Kongresuko, Senatuko, Extremadurako Biltzarreko eta Donostiako Udaleko zenbait talde politikorekin batzartu ginen. Halaber, Fundación Abogacía Española fundazioarekin eta Arriskuan dauden Abokatuen Nazioarteko Behatokiarekin batzartu ginen.

Azaroan, **Madri**len izan zen **Mexikoko Centro de Derechos Humanos Paso del Norte** erakundeko **Alejandro Durán** defendatzailea, PBIk lagundutako bira batean. Biraren helburua zen torturaren biktimen eta desagertze behartuko biktimen senideen lana ezagutzera ematea. Horretarako, Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioarekin eta Diputatuen Kongresuko eragileekin batzartu ginen.

AA alertak, aktibazioak eta parlamentuko ekintzak

2023an zehar, hainbat alerta eta aktibazio partekatu ditugu PBIren laguntza-sarearekin. Horiek giza eskubideen arloko Kolonbiako, Honduraseko, Guatemalako eta Mexikoko egoerari buruzkoak izan dira. Hain zuzen, honako hauek izan dira gure kezka eta arreta erakarri duten gai nagusiak:

- Lagundutako pertsona, erakunde eta komunitate defendatzaileen aurkako segurtasun-arazo larriak, hala nola Honduraseko Guapinol komunitatearen eta Tocoako Ondasun Komun eta Publikoak Babesteko Udal Batzordearen aurkakoak, edo Mexikoko Frente de Pueblos en

Defensa de la Tierra y el Agua – Morelos, Puebla, Tlaxcala (FPDTA-MPT) eta Kolonbiako DHColombia erakundeek jasandakoak.

- Hondurasen lurra, lurraldea eta ingurumena defendatzeko eremuaren narriadura, eta horrek hainbat erakunderi eta komunitateri eragiten dizkien kalteak, hala nola hauei: OFRANEH, ARCA, CNTC, COPINH, Plataforma Agraria, COPA, Guapinol...
- Guatemalako Izabal, Baja Verapaz eta Alta Verapaz departamenduetan judizioz kanpoko irtenarazteen ugaritzea. Horiek bereziki pairatzen dituzte Unión Verapacense de Organizaciones Campesinas (UVOC) eta Comité Campesino del Altiplano (CCDA) erakundeetako komunitateek.
- LGTBI+ komunitateen eskubideen defendatzaileek Hondurasen duten babesgabetasuna.
- Guatemalako krisi demokratikoa eta Zuzenbide Estatuaren narriadura.

Eragiteko lanari esker, lagundutako pertsonen, erakundeen eta komunitateen babesa bultzatzeko hainbat ekintza sustatu dira: mehatxuen eta erasoen aurrean premiazko erantzunak, parlamentuko ekintzak, erabaki instituzionalak, komunikatuak, gutunak, alde biko komunikazioak, eta abar. Horien artean, honako ekintza publiko hauek nabarmendu nahi ditugu:

- Otsailean, Diputatuen Kongresuko Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Batzordeak **Guatemalako luraren, lurraldearen eta ingurumenaren defendatzaileen kriminalizazioari buruzko legez besteko proposamena** onartu zuen.

— Azaroan, Donostiako Udalak **Kolonbiako emakume bilatzaileei buruzko lege-proiektuaren aldeko adierazpen instituzionala** onartu zuen aho batez.

Sentsibilizazioa eta hezkuntza

Pertsona eta erakunde defendatzaileen eta herritarren artean topaketak antolatzea da PBI-EEren jarduera esanguratsuenetako bat. Topaketa horiei esker, giza eskubideen defentsaren egoerarekin harreman zuzena eskaintzen zaio gizarteari, beren protagonisten hitzaren bitartez. Hala, kontzientzia kritikoa piztu nahi dugu Espainiako Estatuko gizartean, eta giza eskubideak babesteko konpromiso bat bultzatu nahi dugu. Halaber, sentsibilizazio ekintzak ere antolatzen ditugu, giza eskubideen defendatzaileen lana ezagutzera emateko, kultura formatuak erabiliz, hala nola argazki-erakusketak, zine-zikloak eta antzezlanak.

Unibertsitate mintegiak eta ekitaldi publikoak

Defendatzaileekin egiten ditugun bira horien esparruan, ekitaldi publikoak eta unibertsitate mintegiak antolatu dira lagundutako erakundeen lan-eremua eta lana bera lehen eskutik ezagutzera emateko.



Apirilean, **mintegiak** antolatu ziren **Valladolideko, Valentziako eta Alacanteko unibertsitateetan**. Mintegiak Guatemalan lurra eta lurraldea defendatzen duten horien eta beren kasuak daramatzaten talde juridikoen aurkako kriminalizazioari buruzkoak izan ziren, eta, horretarako, **Multisectorial Chinautla erakundeko Efraín Martínez eta BDHko Diana Méndez Vivar** izan genituen.



Ekainean, **CSPPko Óscar Ramírezen eta MOVICEko Martha Giraldo**ren bisitan zehar, hainbat **ekitaldi publiko** antolatu ziren **Iruñean, Madrilén eta Bartzelonan**. Horien helburua izan zen giza eskubideen defentsaren egoera ezagutzera ematea, Kolonbiako aldaketa politikoko gaur egungo testuinguruan.

FNEB erakundeko **Andrea Torres** Bautista defendatzaile kolonbiarrarekin egindako biraren harira hainbat **ekitaldi publiko** egin ziren **Donostian, Méridan eta Badajozen**. Horietan memoria eskubidea landu zen, ikuspegi feminista batetik eta Espainiako Estatuko memoriaren aldeko kolektiboen esperientziekin elkarrizketan.

Mexikoko CDH Paso del Norte zentroko Alejandro Duráñen bisitan, **mintegi** bat egin genuen **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean**, eta horren helburua izan zen torturaren biktimen eta desagertze behartuko biktimen senideak laguntzean giza eskubideak babesteko egiten den lana bistaratzea.

Azkenik, Periferias del món erakundearekin elkarlanean, **ekitaldi publiko** bat antolatu genuen **Valentzian**, beste erakunde batzuekin batera. Haren ardatza zigorgabetasun testuinguruko giza eskubideen defentsa juridikoa izan zen, eta, horretarako, Guatemalako **BDH** erakundeko **Edgar Pérezen eta Diana Méndezen** bisita baliatu genuen.

Sareak ehunduz topaketak

Defendatzaileen bisitak gizarte zibileko erakundeekin topaketak antolatzeko baliatu dira Espainiako Estatuko hainbat lurraldetan, sareak osatzeko helburuz.



Hala, apirilean, Euskal Herriko gizarte erakundeekin **sareak ehuntzeko topaketak** antolatu ziren **Bilbon**; baita **Valentzian** ere, azken horretan, gizarte mugimenduekin eta Asanblada Feministarekin. Horietan guztietan, Guatemalako Efraín Martínez eta Diana Méndez Vivar defendatzaileak izan ziren.

Óscar Ramírezen eta Martha Giraldoen bisitan zehar, topaketak antolatu ziren **Kataluniako** Taula per Colombia plataformako erakundeekin eta Kolonbiako diasporarekin, baita **Madrilgo** protestarako eskubidearen eta memoriarako eskubidearen aldeko gizarte erakundeekin ere

Sandra Calel eta Lesbia Artola defendatzaile guatemalarren biraren esparruan, **Reuseko (Tarragona)** Union de pagesos y mujeres pagesas elkarte bisitatu genuen, hango eta hemengo nekazarien borroka partekatzen.



Madriren, topaketa bat egin zen Mexikoko diasporarekin eta torturaren aurka lan egiten duten erakundeekin, Alejandro Durán defendatzaile mexikarraren bisita baliatuz.

Gainera, PBIk parte hartzen duen sareen topaketetan ere izan gara, beste gizarte erakunde batzuekin batera, hala nola **Defendatzaileen Sareak Madriren** egindako topaketan, **Bartzelonako El Prat de Llobregat** herrian antolatutako **Botere Korporatiboaren Zigorgabetasunaren Aurkako estatu mailako II. Topaketan**, lafede.cat sareko Bakearen eta Indarkeriarik Ezaren Ardatzak Bartzelonan antolatutako **Bakeari eta Indarkeriarik ezari buruzko Jardunaldietan**, edota **Taula Catalana per Colòmbia** erakundearen **XXI. Jardunaldietan**.

Katalunian, Enpresen eta Giza Eskubideen taldeko jardueri jarraipena ematen jarraitzen dugu. Talde horrek urteak daramatza Kataluniako Generalitateak lagundutako **Enpresen eta giza eskubideen Zentro Publikoaren (CCEIDH)** eraketa sustatzen, eta 2023an CCEDHren Aholku Batzordea osatzeko proposamenean eta Zentroaren zabalkunde kanpainan lagundu genuen.



2023ko JARDUEREN MEMORIA
NAZIOARTEKO BAKE BRIGADAK -
ESPAINIAKO ESTATUA (PBI-EE)

Erdialdeko Amerikako Bakearen eta Giza Eskubideen Kataluniako

Mahaiaren eraketa ere nabarmendu nahi dugu. Hura hainbat erakundek bultzatu dute, horien artean PBI Kataluniak ere, eta Erdialdeko Amerikako bakearen eta giza eskubideen alde eragiteko eremua izango da.

Argazki-erakusketak, zine-zikloak eta antzezlanak

2023an, **“Desenterrar la memoria. Defender la vida”** ikus-entzunezko erakusketa inauguratu dugu. Horretan, Kolonbian memoria, egia eta zigorgabetasunaren aurkako borroka lantzen duten hainbat erakunderen irudiak eta audioak biltzen dira. Edu Leónen argazkiekin eta Patricia Simónen testuekin, erakusketa honako leku hauetan izan da: **Badajoz, Bilbo, Valladolid, Torrelavega (Kantabria) eta Rivas-Vaciamadrid (Madril).**

Gainera, **“Colombia. Ausencias presentes”** argazki-erakusketa mantendu dugu. Lan horren helburua herrialdeko desagertze behartua bistaratzea izan da eta senideen bila dauden horientzako omenaldia da. Argazki, begirada eta keinu sorta horrek, Jairo Marcos eta M^a Ángeles Fernándezen argazki eta testuekin, herri batek egiturazko indarkeriaren erdian bakea eraikitzeke egiten duen lana erakusten du. Aurten **Bartzelonan** izan da.



“**Vivir defendiendo derechos. 20 relatos gráficos por la defensa de los derechos humanos**” argazki-erakusketak sei herrialde hauetako giza eskubideen defendatzaileen esperientziak biltzen ditu: Mexiko, Honduras, Guatemala, Kolonbia, Sahara eta Palestina. Aurten **Kordobako Fuente-Tójar eta Peñarroya-Pueblonuevo** herrietan izan da, eta horietan “**Sangre de la Tierra**” dokumentala proiektatu da. Dokumentalean, Erdialdeko Amerikako hiru lurraldetako (Mexiko, Honduras eta Guatemala) erresistentziak aurkezten dira zentral hidroelektrikoen aurrean.



Ekainean, Theatre for Roots ekimenak zuzendutako “**Colombia Es**” antzezlan aurkeztu zen **Méridan (Badajoz)**. Hura antzezlan garaikide eta dokumentala da eta komunitate indigenek, nekazariek eta afrikar jatorrikoek sortutako bake ekimenak bistaritzen ditu, gatazka armatuko eta indarkeriako testuinguruan beren burua babesteko estrategia kolektibo gisa. Gainera, hainbat biktimak memoriak, justizia, egia eta erreparazioa exijitzeko egiten duten lana erakusten du.



Komunikazioa

Giza eskubideen erakundeek eta defendatzaileek egiten duten lana ezagutzera ematea lehentasuna da babes integraleko gure estrategian. Kasuak bistaratzeak –beti arrisku azterketa batekin– profila igotzeko eta erasoen kostua handitzeko aukera ematen du, eta defendatzaileen babesari laguntzen dio. Horrexegatik, komunikazio-mekanismo ugari mantentzen ditugu: txostenak zabaltzea, argitalpenak eta albisteak, kazetariekin eta hedabideekin lan egitea, sare sozialetan egotea, eta abar.

Argitalpenak

PBI-EEK argitaratutako ***Guía de Comunicación para la Incidencia Social y Política*** gidaliburuak indarkeriako testuinguruetan giza eskubideen babesari buruz informatzeko tresna erabilgarriak eskaintzen ditu, babes integraleko helburuekin. Gidak, bada, pertsona, erakunde eta komunitate defendatzaileen lan-testuinguruari buruz komunikatzeko gakoak eskaini nahi ditu, haiek babesten laguntzen duten ekintzak abian jartzearen aldeko eragin politikoa eta soziala egiteko helburuz.





Voces de la Tierra

2023an zehar, **Carne Cruda** online irratsaioarekin lan egiten jarraitu dugu, **Voces de la Tierra** atalean. Lankidetzaz horren bitartez, PBIk lan egiten duen herrialdeetako testuinguruak bistaratzeko dira, baita horietan giza eskubideen alde lan egiten duten erakundeen lana ere. Urtean zehar honako atal hauek eman dira:

- 2. denboraldia. 2. atala.
Las hidroeléctricas te dejan sin luz y sin agua desde Guatemala
(2023ko urtarrilaren 19an emana)
- 2. denboraldia. 3. atala.
Las promesas que no cumple Xiomara y la violencia contra campesinos en Honduras
(2023ko otsailaren 27an emana)
- 2. denboraldia. 4. atala.
México, país mortal para los defensores de la tierra
(2023ko martxoaren 27an emana)
- 3. denboraldia. 1. atala.
Guatemala y el río Las Vacas, uno de los más contaminados del mundo
(2023ko abenduaren 20an emana)

Hedabideetan agertzea

Urtean zehar, komunikazio ekintza asko egin ditugu hainbat kazetari eta hedabiderek, lagundutako pertsona, erakunde eta komunitateen lana eta PBIren babes-lana ere bistartzeko asmoz. Bestek beste, honako hauek nabarmentzen ditugu:

Prentsa

- *Jugarse la vida por recurrir a la justicia en México*
(M^a Ángeles Fernández eta Jairo Marcos, El Salto, 2023/01/08)
- *Buenaventura, de ser una de las ciudades más violentas del mundo a celebrar 100 días en paz*
(Patricia Simón, La Marea, 11/01/2023)
- *Xiomara Castro cumple un año como presidenta de Honduras sin cumplir con el campo*
(Soraya Constante, El Periódico, 27/01/2023)
- *Au Honduras, ces paysans assassinés pour avoir voulu sauver leur eau*
(Soraya Constante eta Edu León, Courrier International, 2023/02/28)
- *La 'dictadura bicéfala' de Daniel Ortega y su esposa, Rosario Murillo, y el origen de la crisis de los apátridas en Nicaragua*
(Soraya Constante, 20 minutos, 22/02/2023)



- *Las balas con nombre apellido que aguardan por los campesinos y en Honduras*
(Soraya Constante eta Edu León, El Salto, 2023/03/05)
- *Nicaragua entre huidas intempestivas y familias separadas: historias del exilio forzado por Daniel Ortega*
(Soraya Constante, Univisión, 6/03/2023)
- *El riesgo de proteger su río sagrado: “Antes me muero por defender el agua que por la sequía”*
(Roberto Palomo, El País, 3/04/2023)
- *Vivir bajo amenaza de muerte por defender el río de su comunidad: “Me da más miedo que todos muramos de sed”*
(Roberto Palom, eldiario.es, 6/04/2023)
- *Diana Méndez, activista i advocada de Guatemala: “Han passat sis anys de la mort de 41 xiquetes a Guatemala i encara no s’ha fet justícia”*
(Lluís Pascua, La Directa, 2/06/2023)
- *«En Colombia día tras día seguimos recibiendo reportes de desaparecidos»*
(Ainara Lertxundi, Naiz, 27/10/2023)



Irratia


- GUATEMALA - La lucha por los derechos humanos Arregalia Radio (2023ko apirilaren 18an emana)
- Guatemala: La defensa de los derechos humanos y de la vida en peligro. Diana Méndez y Efraín Martínez Radio Klara (2023ko apirilaren 19an emana)
- Elkarrizketa Radio Malva irratian Guatemalako Bufete Jurídico de Derechos Humanos giza eskubideen aldeko langelako Diana Méndez abokatuari (2023ko apirilaren 21ean emana)
- RNEko Sumando Esfuerzos irratsaioan PBIri egindako elkarrizketa (2023ko apirilaren 28an emana)
- Elkarrizketa Canal Extremadura kateko El sol Sale por el Oeste saioan Kolonbiako Fundación Nydia Erika Bautista fundazioko Andrea Torres Bautista giza eskubideen defendatzaileari (2023ko urriaren 5ean emana)

Antolakuntza indartzea

PBI erakunde erreferentea da babesaren arloan, eta 40 urte baino gehiagoko ibilbidean zehar esperientzia sakona bereganatu du, Hegoalde Globaleko hainbat herrialdeetako erakunde defendatzaileei babes eta segurtasun estrategiak emateko prestakuntzak eginez. Duela zenbait urtetik hona, PBI-EEk pilatutako esperientzia hori partekatu nahi izan du, eta, horretarako, prestakuntza prozesuak antolatu ditu Espainiako Estatuan. Hala, giza eskubideen aldeko lanean dauden baldintzak hobetzeko tresnak eskaini nahi dizkie gure inguruko gizarte zibileko erakundeei eta gizarte mugimenduei.



2023ko martxoa eta uztaila artean, **“Herramientas de protección integral para activistas y defensoras/es de derechos humanos” prestakuntza-ikastaroaren 3. edizioa** antolatu genuen. Horrek formatu mistoa izan zuen, hau da, alde batetik, online ikasteko eta partekatzeko plataforma bat izan zuen, eta, bestetik, hiru saio antolatu ziren **Bilbon, Donostian** eta **Gasteizen**. Ikastaroan, bada, hainbat erakundek parte hartu zuten, hala nola giza eskubideak defendatzeagatik kriminalizazio arriskua duten zenbait erakundek, kolektibok eta gizarte mugimenduk, erakunde lankideen segurtasunagatik kezkatutako zenbait GKEk eta kriminalizazioa jasaten duten pertsona migratuen eta errefuxiatuen zenbait kolektibok.



Halaber, babes tresnei buruzko **prestakuntza-tailer** bat eman genion **Bartzelonako Udaleko** Giza Eskubideen Baliabide Zentroari, PBI Kolonbiaren laguntzaz.

SAREAK ETA ALIA NTZAK

Egiten dugun babes lana ez zen posible izango beste gizarte erakunde, sare eta gizarte zibileko plataforma batzuekin ditugun aliantzak gabe. Tokiko, estatuko eta nazioarteko sareetan parte hartuz, defendatzaileen segurtasun-egoeraren inguruan egindako eragin lanaren efektuak handitzen ditugu.

Espainiako Estatuan, PBIk honako artikulazio-eremu hauetan parte hartzen du:

- Red Defensoras (estatu-maila)
- Espacio de Coordinación Estatal de las Plataformas de Solidaridad con Colombia (estatu-maila)
- Red estatal contra la Impunidad del Poder Corporativo (estatu-maila)
- Taula catala per la Pau i els Drets Humans a Colombia. Katalunia
- Taula catalana en defensa de los Derechos Humanos y la Paz en Centroamérica plataformaren talde eragilea. Katalunia
- Grupo de Paz y No Violencia. Organitzacions per a la justícia global (LaFede). Katalunia.
- Grupo de Empresas y derechos humanos. Organitzacions per a la justícia global (LaFede). Katalunia.
- Grupo de Feminismo. Organitzacions per a la justícia global (LaFede). Katalunia.
- Kolektiba Colombia. Euskadi

- Plataforma Extremeña de Solidaridad con Colombia. Extremadura
- Coordinadora Cántabra de ONGDs. Cantabria.
- Donostiako Udaleko Garapenerako Hezkuntza eta Lankidetzako Aholku kontseilua. Donostia.

Gainera, nazioartean PBI honako hauetako kide da:

- Human Rights and Democracy Network (HRDN) eta Women Human Rights Defenders International Coalition (WHRDIC)
- ProtectDefenders.eu
- EU-LAT sarea
- Oficina Internacional de Derechos Humanos – Acción Colombia (OIDHACO)



TOKIAN BERTAN

Nazioarteko elkartasuna mobilizatzea

PBIk Espainiako Estatuko hainbat instituziorekin lan egiten du, batez ere lankidetzaz deszentralizatuko erakundeekin. Horiek tokian egiten dugun babes-lana lagundu dute, eta, laguntza horri esker, PBIk herrialde horietan jarrai dezake, arriskuan dauden giza eskubideen defendatzaileak babesten eta horien lan-eremua zabalik mantentzen.

Alde batetik, lurraldean etengabe egoteak (lehen eskuko informazioa lortuz eta testuingurua sakon ulertuz) eta, bestetik, eragin eta sentsibilizazio lana egiteak, bada, ikuspegi eta ahots paregabea ematen digute giza eskubideen arloan. Izan ere, arriskuak jasaten dituzten defendatzaileen eta horiek babesteko ardura eta obligazioa duten erakundeen arteko arrakala murrizten du.

Eragin, sentsibilizazio eta bistaratze lanaz gain, PBI-EEtik tokian dauden PBIko erakundeak laguntzen ditugu, nazioarteko brigadistak mobilizatuz. Halaber, proiektuak eta programak kudeatzeko lan handia egiten dugu; izan ere, horiek honako herrialde hauetan nazioarteko laguntza mantentzea ahalbidetu dute:

Kolonia: <https://pbicolombia.org/>

Guatemala: <https://pbi-guatemala.org/>

Honduras: <https://pbi-honduras.org/>

Mexiko: <https://pbi-mexico.org/>

Nikaragua Costa Rican: <https://www.peacebrigades.org/es/pbi-nicaragua>

Kenya: <https://www.peacebrigades.org/es/pbi-kenia>

2023ko historia nabarmenak

Giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak, erakundeak eta komunitateak funtsezko eginkizuna dute eskubideen urraketan aurrean eusteko, gizarte justiziaren alde lan egiteko, eta bizitza bidezkoak eta jasagarriak martxan jartzeko, alternatiba gisa. PBItik, laguntzen ditugun erakundeak, mugimenduen eta komunitateen lorpenak nabarmendu nahi ditugu. Garaipen horiek ez dira PBIrenak; aitzitik, erakunde eta komunitate defendatzaileen lanaren emaitza dira. PBIren bidelaguntza integralak horiei babesa ematen laguntzen du, bizi duten arrisku egoeraren aurrean, eta mundu bidezkoago bat sortzeko egiten duten lana modu seguruan mantentzeko eremuak zabaltzea sustatzen du. Honako hauek dira 2023ko historia nabarmen batzuk.

Kolonbia

Santa Rosa de Guayacán wounaan komunitatea bere lurraldera itzuli da

Kolonbia, Siriaren ondoren, munduko barne desplazatu kopuru handiena duen herrialdea da. 2024an, NBEren kalkuluen arabera, 6 milioi barne desplazatu daude herrialdean. Hainbat komunitate beren lurraldeetatik joatera behartuak izan dira, esate baterako, wounaan herri indigeneko komunitate asko. 2021ean, ehunka wounaan beren etxeak utzi behar izan zituzten, beren historian laugarren aldiz; oraingoan talde paramilitarren eta gerrillarien kontrainsurjentzia operazioen eta mehatxuen ondorioz.

Comisión Interclerical de Justicia y Paz (JyP) erakundeak, PBIren nazioarteko laguntzaz, eskaera judizial bat aurkeztu zuen. Haren ondorioz, epaileak lurra itzultzeko epaia eman zuen 2023ko otsailaren 13an, eta, horretan, wounaan komunitatea barne gatazka armatuaren biktima zela onartu zuen.

Hainbat hilabetez, PBI eta JyP komunitatearekin batzartu ziren lurralderako itzulera planifikatzen laguntzeko. Itzultzekotan gerta zitekeenaren beldur ziren, eta, hala, PBIren presentziak batzar horien segurtasuna bermatzen lagundu zien, eta nolabaiteko segurtasun-sentsazio bat sortu zuen, nazioarteko erkidegoa bertan zegoelako. 2023ko abenduaren erdialdean, PBIren talde bat Dagua herrira desplazatutako zenbait wounaan familiarekin batzartu zen. Familia horiek bertatik abiatuko ziren komunitate osoarekin eta beren ondasunekin, eta bi urtez ikusi ez zuten lurraldera itzuliko ziren. Inolako gorabeherarik gabe heldu ziren eta wounaan komunitateek beren lurretan ospatu ahal izan zuten urte amaierako jaia, beren lurraldera behingoz itzultzeak eragindako pozaz eta itxaropenaz.





Carlos Choc:

“PBIren laguntzaz Europara egindako birak eta Europar Batasuneko parlamentarietara harremana oso erabilgarriak izan dira nire lanerako eta El Estoreko kektxi herriaren eskubideen alde borrokatzeko”



Guatemala

Carlos Choc kazetari komunitarioaren aurkako karguak bertan behera geratu dira.

Carlos Ernesto Choc Chub kektxi kazetari komunitarioak 2017an Izabal departamenduko El Estor herrian arrantzaleen aurka erabilitako errepresioa dokumentatu zuen. Horretan, arrantzaleetako bat hil zuten. Protestaren arrazoia nikelaren ustiapenak Izabal lakuan eragindako kutsadura izan zen. Kazetaria kalte horiek ikertzen ari zen, eta horren ondorioz, jazarpena, erasoak eta kriminalizazioa jasan zituen meatzaritza enpresaren eskutik, Guatemalako estatuaren laguntzaz. 2017tik eta 2024ra bitartean, epai prozesu bat jasan zuen artisau arrantzaleen gremio-elkartearen beste hiru kideekin batera.

2022an, PBIk harreman zuzena ezarri zuen Carlos Chocekin, Bufete Jurídico de DDHH langelari emandako bidelaguntzaren esparruan; izan ere, langelak arrantzaleen eta kazetariaren defentsa hartu zuen bere gain. Kazetariaren ikerketen profil altua zela eta, hark segurtasun gorabeherak izan zituen. Horregatik, PBIk nazioarteko laguntzako tresnak eskaintzea baloratu zuen. PBIren nazioarteko sare zabalak aukera eman zion bere egoera eta El Estoreko kektxi komunitateen egoera Europako Parlamentuko Giza Eskubideen Azpibatzaileekin (DROI) eta Europar Batasuneko ordezkariekin partekatzeke, baita kasuarekin zerikusia duten Nazio Batuen errelatoretza horiekin ere. Eremu horiei eta ondorengo jarraipen lanari esker, Nazio Batuen sei Errelatoretza Berezik eta Enpresen eta Giza Eskubideen Lantaldeak gutunak bidali zituzten beren kezka adierazteko eta nazioarteko hitzarmenak errespetatu zitzaten eskatzeko. Azkenik, 2024ko.

2023ko JARDUEREN MEMORIA
NAZIOARTEKO BAKE BRIGADAK -
ESPAINIAKO ESTATUA (PBI-EE)



“

Christopher Castillo:

“PBIren laguntza eta sostengua ezinbestekoa eta eztabaida ezina da ARCAHrentzat. Oso eskertuta gaude PBIrekin, CIDHren aurrean egindako eragin-lanagatik eta erakundearen segurtasun-gidaliburua egiteko emandako laguntzagatik”

”

Honduras

ARCAH erakundeko kideak babesteko kautelazko neurriak

Honduras munduko herrialderik arriskutsuenetako bat da lurra eta lurraldea defendatzen duten lagunentzat. Azken urteotan, Alternativa de Reivindicación Comunitaria y Ambientalista de Honduras (ARCAH) erakundeak lurraldeak defendatzeko egiten duen lana funtsezkoa izan da giza eskubideen eta ingurumen eskubideen urraketak agerian jartzeko, bai Enplegu eta Garapen Ekonomikoko Zonaldeen (ZEDE) Legearen kasuan (hura 2022ko apirilean indargabetu zen), bai Tegucigalpako hegoaldean dagoen Loarque koloniako El Cortijo hegatzaintza-enpresaren kasuan, besteak beste. Baina ARCAH erakundeak egiten duen defentsa-lana belzteko kanpainak eta erakundeko kideen aurkako erasoak eta kriminalizazio-prozesuak ere eman dira.

PBIk 2022ko irailetik laguntzen du ARCAH. 2023an zehar, Giza Eskubideen Amerika arteko Batzordearekin (CIDH) harremanean jarri genuen erakundea, eta, horri esker, 2023ko abuztuaren 20an CIDHk erakundeko hamaika kide babesteko kautelazko neurriak ezarri zituen. Aldi berean, barne-antolakuntza indartzeko tresnak ematen ditugu, segurtasunari, babesari eta autozaintzari buruzko tailerren bitartez. Jarduera horiek ondorio positiboak izan dituzte, alde batetik, erakundeak jasaten dituen arriskuak murrizteari dagokionez, eta, bestetik, Hondurasetik kanpo duen laguntza-sarea handitzeari dagokionez.



Mexiko

Alejandro Torres Chocolatl lurraldearen defendatzailea aske utzi dute

2022tik, PBI Mexikok Frente de Pueblos en Defensa de la Tierra y el Agua de Puebla, Morelos y Tlaxcala (FPDTA-MPT) erakundea laguntzen du. Erakunde horretako kide da Alejandro Torres Chocolatl giza eskubideen defendatzailea eta Radio Zacatepec irrati komunitarioa. Gainera, CNI indigenen batzorde nazionalako eta Frente Pueblos Unidos de la Región erakundeko kide ere bada. Metlapanapa ibaia defendatzeko lan egin du; izan ere, Huejotzingoko ehungintza-parke industrialeko hondakin-uren isurketek hura kutsatzeko arriskua dago. Halaber, herri indigenen autodeterminazio-eskubidea defendatzen du.

2023ko ekainean, Alejandro hautamenez atxilotu zuten Santa Maria Zacatepecen. PBI Mexikok bisita bat antolatu zuen komunitate horretara Finlandiako eta Suitzako enbaxadekin, Europar Batasunaren “Beren ahotsak babes ditzagun” ekimenaren esparruan. Ekintza garrantzitsua izan zen: Finlandiako enbaxadak Alejandro Torres askatzeko esku hartu zuen hura atxilotu eta ordu gutxira.



“

Judith Odhiambo Ochieng:

Emakumeen giza eskubideen defendatzaile izateak erabat errotutako egiturak desegitea eta muga izugarriei aurre egitea eskatzen du, eta, hortaz, eginkizun arriskutsua da. Hala ere, borroka horren barruan sariak ere egoten dira: pertsonen bizitzan lortzen dugun eragin sakonak justiziarekin, berdintasunarekin eta emakumeen ahalduntzearekin konprometituta jarraitzeko motibazioa ematen dit”

”

Kenya

Nairobiko kokaleku informaletako emakume defendatzaileei bidelaguntza eman diegu

PBI Kenyak Nairobiko bost kokaleku informal hauetako 15 defendatzailerekin lan egin du: Kibera, Kawangware, Mukuru, Langata eta Mathare. Judith Odhiambo Ochieng giza eskubideen defendatzailea, laguntzaile juridikoa eta emakumeen eskubideen defendatzailea da Langatako kokaleku informalean. Bertako Langata Legal Aid Centre (LLAC) erakunderen sortzaileetako bat da. Giza eskubideen defendatzaile gisa duen ibilbidearen hastapenean, bere egoera eta Langatako eta Kiberako kokalekuetako beste pertsona batzuen egoerak aldatzeko nahia izan zen. Bera Kiberan hazi zen, eta genero indarkeriaren eta giza eskubideen urraketan egoera latza ikusi ahal izan zuen.

PBIk Kenyako giza eskubideen defendatzaileen gaitasunak hobetzen lagundu du, horiek babesteko estrategiak hobetu bitartez eta giza eskubideen aldeko lanean modu seguruago eta iraunkorrago batean parte hartzeko aukera garatuz. Gainera, pertsona defendatzaileen eta estatuko eta estatuz kanpoko beste eragile batzuen arteko lankidetzak estuago bat sustatu du, eta, hala, sareak eta mugimenduak indartu ditu giza eskubideen arloko koordinazioa eta komunikazioa hobetzeko.





2023 ZENBAKITAN

PBI Espainiako Estatua

LORTUTAKO DIRU-SARRERAK

Tokiko proiektuetarako lortutako diru-laguntzak	552.246,55 €
GEHrako eta Eragin lanerako lortutako diru-laguntzak	288.132,00 €
Beste diru-sarrera batzuk	8.227,32 €
GUZTIRA	848.605,87 €

EGINDAKO GASTUAK

Langile-gastuak	141.122,01 €
Egiturazko beste gastu batzuk	14.204,13 €
GEH eta Eragin jardueren exekuzioa Espainiako Estatuan	108.252,35 €
Tokiko proiektuetara bidalitakoa	536.046,06 €
GUZTIRA	799.624,55 €

Datuak 2023an lortutako baliabideei eta exekutatutako gastuei dagozkie.

Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaz

PBI ESPAINIAKO ESTATUA

Aldia	Proiektuaren izena	Eremua	Erakunde kideak	Diru-laguntza (€)	Erakundea
2022 - 2023	Acompañamiento y observación internacional para la protección integral y fortalecimiento de las organizaciones y personas defensoras de derechos humanos en su labor a favor de víctimas de desaparición forzada en Colombia, a través de la búsqueda de verdad, justicia, reparación y no repetición.	Kolonia	Fundación Nydia Erika Bautista	133.455,00	Garapenerako Lankidetzaren Extremadurako Agentzia (AEXCID)
2022-2023	Atención a las víctimas de violaciones de DDHH en el conflicto en Colombia a través de la protección integral y el fortalecimiento de los procesos organizativos de construcción de paz con enfoque	Kolonia	Comisión de Justicia y Paz	133.455,00 €	Garapenerako Lankidetzaren Extremadurako Agentzia (AEXCID)
2021-2023	Acompañamiento integral para la protección y defensa de líderes/as sociales, defensor/as de derechos humanos y paz en Colombia	Kolonia	Mugarik Gabe Nafarroa	594.952,38	Nafarroako Gobernua
2022 - 2023	Protección internacional de defensores y defensoras de la tierra y del medio ambiente en Guatemala	Guatemala	PBI Guatemala	17.655,20	Kordobako Diputazioa
2023-2024	Abriendo espacios para la paz: acompañamiento y protección internacional a personas, organizaciones y comunidades defensoras de los DDHH en Colombia	Kolonia	PBI Kolonia	44.222,90	Donostiako Udala
2023-2024	Abriendo espacios para la paz: acompañamiento y protección internacional a personas, organizaciones y comunidades defensoras de los DDHH en Colombia.	Kolonia	PBI Kolonia	43.270,46	Hernaniko Udala
2023	Acompañamiento y observación internacional a lideresas sociales y personas defensoras de derechos humanos a través de un modelo de protección integral con perspectiva de género en Colombia	Kolonia	PBI Kolonia	35.000,00	Iruñeko Udala
2023-2024	Acompañamiento integral para visibilizar la labor de personas, organizaciones y comunidades defensoras de DDHH en ciudades y territorios de Colombia.	Kolonia	PBI Kolonia	110.000,00	Nafarroako Gobernua
2023-2024	Acompañamiento y observación internacional a modelo de protección integral en México	Mexiko	PBI Mexiko	18.600,00	Santanderreko Udala
2023-2024	Protección de personas defensoras de derechos humanos en Guatemala: acompañamiento internacional a organizaciones y procesos sociales que defienden el derecho a la tierra y al territorio.	Guatemala	PBI Guatemala	47.198,40	Kantabriako Gobernua
2023-2024	Protección de organizaciones defensoras desde acciones de visibilización, sensibilización e incidencia política	Guatemala	PBI Guatemala	14.000,00	Junta de Castilla y León
2023-2025	Caminando juntas: protección integral a mujeres y personas de la disidencia sexual y de género, defensoras de los DDHH en Honduras	Honduras	PBI Honduras	243.455,00	Garapenerako Lankidetzaren Espainiako Agentzia (AECID)
2023-2024	Incidencia política para la protección integral de personas, organizaciones y comunidades defensoras de derechos humanos en África y América Latina	Mexiko, Honduras, Guatemala, Kolonia eta Kenya.	PBI Mexiko, PBI Honduras, PBI Guatemala, PBI Kolonia eta PBI Kenya	200.000,00	Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (GLEA)

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza

PBI ESPAINIAKO ESTATUA

Aldia	Proiektuaren izena	Eremua	Erakunde kideak	Diru-laguntza (€)	Erakundea
2022 - 2024	Defender la vida: movilizando a la sociedad e instituciones vascas para la protección de personas y organizaciones defensoras de derechos humanos.	Euskadi		154.146,57	Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (GLEA)
2022 - 2023	Protección integral a través de la comunicación para la incidencia social y política en el contexto regional mesoamericano.	Extremadura		80.550,15	Garapenerako Lankidetzaren Extremadurako Agentzia (AEXCID)
2022 - 2023	Todas somos defensoras de derechos humanos: promoción del derecho a defender derechos y protección de personas defensoras en la cooperación.	Estatu osoa	ICID	54.593,00	Garapenerako Lankidetzaren Espainiako Agentzia (AECID)
2022 - 2023	Ciudadanía crítica, societats justes. Contribuint a la presa de consciència i l'empoderament de la ciutadania valenciana enfront les agresions al territori a Mesoamèrica i al País Valencià per avançar en la agenda dels ODS.	Valentzia	Associació Solidaritat Perifèries del Món	2.000,00	Valentziako Generalitatea
2022 - 2023	Consolidación de la estrategia de comunicación e incidencia política y social como herramienta de protección para personas defensoras de DDHH.	Estatu osoa		7.992,00	MAEC DDHH
2023	Proteger la vida: formación, comunicación, sensibilización y articulación de redes para la defensa de los derechos humanos.	Bilbo		11.989,00	Bilboko Udala
2023-2024	Contar, escuchar y proteger(nos) 3: Comunicación para la incidencia social y política como herramienta de protección para personas defensoras de DDHH en América Latina.	Estatu osoa		8.000,00	MAEC DDHH

Instituzioak indartzea

PBI ESPAINIAKO ESTATUA

Aldia	Proiektuaren izena	Eremua	Erakunde kideak	Diru-laguntza (€)	Erakundea
2022 - 2023	Consolidación de la transversalización del enfoque feminista al interior de PBI y fortalecimiento de su base social en Cantabria.	Estatu osoa		16.000	Kantabriako Gobernua

PBI Katalunia

DIRU-SARRERAK:

Bazkideak:	100,00 €
Diru-laguntza publikoak	554.885,15 €
Bartzelonako Udala	59.988 €
Garapenerako Lankidetzaren Kataluniako Agentzia	494.897,15 €
Guztira	554.958,15 €

GASTUAK:

Tokiko proiektuetara bidalitakoa	
Honduras	63.992,50 €
Guatemala	65.475,78 €
Nikaragua eta Herriarte	249.685,20 €
Kolonbia	108.903,75 €
Langile-gastuak	43.185,95 €
Egiturazko beste gastuak	34.092,95 €
Guztira	565.336,13 €

Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak

PBI KATALUNIA

Aldia	Proiektuaren izena	Eremua	Erakunde kideak	Diru-laguntza (€)	Erakundea
2022-2023	Acompañamiento integral e interseccional de defensoras/es de DDHH en Colombia.	Bogota - Kolonbia	PBI Kolonbia	Proiektuaren guztizkoa: 81.068,00 € Diru-laguntza: 59.988,00 €	Bartzelonako Udala
2023-2024	Acompañamiento integral para visibilizar y fortalecer la lucha del uso de terreno y territorio en Buenaventura y el movimiento DDHH en ciudades y territorios de Colombia.	Buenaventura - Kolonbia	PBI Kolonbia	Proiektuaren guztizkoa: 148.808,88 € Diru-laguntza: 74.516,00 €	Bartzelonako Udala
2023-2024	Acompañando a las personas defensoras de DDHH, víctimas de violaciones, en México.	Mexiko	PBI Mexiko	Proiektuaren guztizkoa: 105.281,80€ Diru-laguntza: 79.993,38 €	Bartzelonako Udala
2022-2024	Fortalecimiento organizativo, protección integral y cuidados a las personas defensoras de DDHH, en especial a las mujeres, en contextos de creciente criminalización y vulneración al estado de derecho agravado por la crisis ambiental en la región de Mesoamérica (Guatemala, Nicaragua y Honduras) y Colombia.	Guatemala Honduras Nikaragua Kolonbia	PBI Guatemala PBI Honduras PBI Kolonbia CUCG CDM CM8M	Programaren guztizkoa: 974.655,00€ Diru-laguntza: 899.813,00 €	Garapenerako Lankidetzaren Kataluniako Agentzia (ACCD)
2023-2024	Memoria y justicia: acompañamiento internacional protector a organizaciones de familiares de víctimas, sobrevivientes y equipos jurídicos involucrados en casos de graves violaciones de derechos humanos cometidas en las épocas de los conflictos armados en Guatemala y Colombia.	Guatemala Kolonbia	PBI Guatemala PBI Kolonbia	Programaren guztizkoa: 323.300,39€ Diru-laguntza: 292.842,00€	Garapenerako Lankidetzaren Kataluniako Agentzia (ACCD)



PARTE HARTU

PBIren parte izan eta giza eskubideen defendatzaileak babesten lagundu nahi duzu?

Hainbat aukera dituzu:

Izan zaitez brigadista tokian bertan

Kolonbian, Hondurasen, Guatemalan eta Mexikon dauden brigadista-taldeek bidelaguntza ematen diete giza eskubideak defendatzen eta gizartea eraldatzeko lan egiten duten pertsonei, erakundeei eta komunitateei. Talde horiekin bat egin nahi baduzu, jarrai gaitzazu gure sare sozialetan deialdien berri izateko eta horietan parte hartzeko.

Izan zaitez PBI-EEren aktibista

PBIk Espainiako Estatuan egiten duen lana lurralde desberdinetan dauden pertsona konprometituen menpe dago. Boluntarioek beren denbora eta ahalegina ematen dute gehien interesatzen zaizkien jardueretan, hala nola proiektuetatik itzultzen diren brigadistak lagunduz, sentsibilizazio jarduerak antolatuz, laguntza-sareak koordinatuz eta abar.

Egin ezazu ekarpen ekonomikoa edota izan zaitez PBIren bazkide

Pertsona askok badakite zein garrantzitsua den giza eskubideak defendatzeko lana, eta PBIk egiten duen lanean lagundu nahi dute nolabait, baina ezin dute aktiboki parte hartu. Ekarpen guztiek laguntzen digute gure eginkizuna betetzen, zenbatekoa dena dela ere. Bazkideen aldizkako ekarpenei esker aldez aurretik planifika dezakegu, gure lana finantzatzen jarraitu ahal izango dugulako ziurtasunarekin. Bazkide izan nahi baduzu, hemen egin zaitezke.

Gogoz eta motibazioz parte hartu nahi duten lagun guztiak dira ongi etorriak!

HARREMANE- TARAKO

Bulegoa

PBI-EEren koordinazioa: coordinacion@pbi-ee.org

Eragin politikoa: advocacy@pbi-ee.org

Sentsibilizazioa: sensibilizacion@pbi-ee.org

Administrazioa eta finantzak: admin@pbi-ee.org

Euskadiko lurralde-delegazioa: donosita@pbi-ee.org

PBI Kataluniaren koordinazioa: catalunya@pbi-ee.org

PBI Kataluniaren teknikaria: tecnica.catalunya@pbi-ee.org

Gure bulego fisikoetara ere jo dezakezu:

PBI Espainiako Estatua

C/ Sta. Lucía nº12, 1º izda.
39003 Santander
Teléfono +34 659 630 355

PBI Katalunia

Carrer d'Erasmus Janer 8, entresòl,
despatx 3.
08001 Barcelona
Teléfono: +34 931 535 832

Nazioarteko Bulegoa

Village Partenaire
15 Rue Fernand Bernier
1060 Brussels, Belgium
Teléfono: +32 (0) 25434443



www.pbi-ee.org

@PBI_EE

PBI-EE

PBI-Estado Español

PBI-EE Brigadas Internacionales de Paz